

# Eranskinak

## 1. Eranskina: Behaketa egiteko erabili den errubrika

	<b>0, 25 Gutxitan sormenaren garapen nabarmenik dago</b>	<b>0.5 Batzuetan garatzen da sormena</b>	<b>0.75 Askotan garatzen da sormena</b>	<b>1 Gehienetan garatzen da sormena</b>
<b>Berritzailea</b>	<p>Irakasleak aurrera eramaten duen ekintza iturrian topatu duen moduan aurrera eramaten du.</p> <p>Irakasleak, gutxitan moldatzen du ekintza ikasleen garapenerako.</p>	<p>Irakasleak egiten duen ekintza, gutxitan berritzailea da, irakasleak ekintza moldatzen du helburu zehatz baterako.</p> <p>Dena den, ikasle guztiek ekintza berbera egiten dute, horren garapenean aldaketak egin gabe.</p>	<p>Irakasleak egiten duen ekintza nahiko berritzailea da, irakasleak ekintza moldatzen du helburu zehatz baterako eta gainera, ikasleek ekintza horren garapena moldatzen dute, haien irizpideen arabera. (kritikotasuna erabiltzen da)</p>	<p>Irakasleak egiten duen ekintza guztiz berritzailea da, irakasleak ekintza moldatzen du helburu zehatz baterako. Ekintza hori estereotipotik huts egiten da, esate-baterako ikasleei gutxitan aurkezten zaie lortu behar duten adibiderik, haiek erabakitzen dute ekintza noiz amaitzen den.</p> <p>Gainera, ikasleek ekintza horren garapena moldatzen dute haien irizpideen arabera. (kritikotasuna erabiltzen da)</p>
<b>Aldaketa</b>	<p>Gutxitan, ikasleak paradigmaz aldatzen du ekintzaren prozesuan zehar.</p> <p>Gutxitan ezagutza berriak garatzen ditu, dakiena aplikatzen du.</p>	<p>Ikasleak ezagutzak garatzen ditu praktikenaren bidez, ekintza osoan zehar ikaskuntza prozesu nabarmena gertatzen da.</p>	<p>Ikasleak lehen momentutik zuen ikuspuntua aldatzen du, berriro ariketa planteatuz gero, ekintza beste modu batera hasiko zuen.</p>	<p>Ikasleak lehen momentutik zuen ikuspuntua aldatzen du, berriro ariketa planteatuz gero, ekintza beste modu batera hasiko zuen.</p> <p>Benetako garapen bat ematen da ikasleengan eta ikaslearen paradigmaman. Ekintza horri aurre egiteko ikuspuntua aldatzen da. Gainera, beste arlo batzuetan aplikatzeko estrategiak ikasten ditu.</p>

<p><b>Arraroa (estereotipoetatik at eta aniztasuna)</b></p>	<p>Proposamen didaktiko honen bidez ikasle guztiak produktu berea lortzen dute, ikasleek lehendabizi jarritako pausu batzuk segi behar dituzte eta haien askatasuna apaingarrietara mugatzen da. Adibidez, kolorearen erabakia.</p> <p>Irakasleak ikasleei produktuaren azkenengo emaitza aurkezten die.</p>	<p>Ekintza honen bitartez lortzen diren produktuak berdinak dira baina ikasleek haien sorkuntzaren prozesuan erabakiak hartzen dituzte.</p> <p>Irakasleak prozesuaren gidaria denez, ikasleek hartzen dituzten erabakiak ez dituzte ondorio handiak izaten. Adibidez, neurrietan, forman eta koloreetan produktu desberdinak izanez gero antzekoak dira (guztiak “gauza” bera dira).</p> <p>Irakasleak ikasleei produktuaren azkenengo emaitza aurkezten die.</p>	<p>Ekintza honen bitartez lortzen diren produktuak berdinak dira baina ikasleek haien sorkuntzaren jabe dira, hartzen dituzten erabaki guztiak prozesua baldintzatzen dute.</p> <p>Ikasleek prozesuaren gidaria direnez, hartzen dituzten erabakiak emaitza baldintzatzen dute, adibidez, neurrietan, forman eta koloreetan produktu desberdinak dira (guztiak “gauza” bera dira baina antzekotasuna ez da ematen).</p> <p>Irakasleak produktuaren azkenengo emaitza zein den esaten zaie, zer lortu behar duten esaten die. Ikasleek nola egin erabakitzen dute.</p>	<p>Ekintza honen bitartez lortzen diren produktuak desberdinak dira eta ikasleek haien sorkuntzaren jabe dira, hartzen dituzten erabaki guztiak prozesua baldintzatzen dute.</p> <p>Ikasleek prozesuaren gidaria direnez, hartzen dituzten erabakiak emaitza baldintzatzen dute, adibidez, neurrietan, forman eta koloreetan produktu desberdinak dira (guztiak “gauza” bera dira baina antzekotasuna ez da ematen).</p> <p>Irakasleak ikasleei produktuaren azkenengo emaitza zein den ez die esaten, helburu bat jartzen die eta ikasleek erabakitzen dute zer eta nola egin.</p>
<p><b>Egokitzapena eta besteen onarpena eskatzen duena</b></p>	<p>Sortutako produktuak ez du helburu zehatz bat betetzen, apaintzearekin erlazionatuta ez dena.</p> <p>Gutxitan, arazo bat konpontzen edo behar bat asetzen du.</p> <p>Gutxitan, inpaktua eragiten du. Irakasleak gidapena eta ebaluazioa egiten ditu.</p>	<p>Sortutako produktuak helburu zehatz bat betetzen du, irakasleak jarritako xedea eta produktua zein den zehazten du.</p> <p>Gutxitan, arazo bat konpontzen edo behar bat asetzen du</p> <p>Gutxitan inpaktua eragiten du. Irakasleak gidapena eta ebaluazioa egiten ditu.</p>	<p>Sortutako produktuak helburu zehatz bat betetzen du, irakasleak xedea azaltzen du eta ikasleek helburu honetarako produktua diseinatzen dute.</p> <p>Gutxitan, arazo bat konpontzen edo behar bat asetzen du.</p> <p>Inpaktu gutxikoa da, gutxitan da nahikoa aldaketa sorrarazteko. Irakasleak gidapena eta auto-ebaluazioa egiten ditu.</p>	<p>Sortutako produktuak helburu zehatz bat betetzen dute, ikasleak jarritako xedea da, honetan oinarrituz ikasleek produktua zein izango den zehazten du.</p> <p>Produktua irakasleak jarritako arazo bat konpontzen edo behar bat asetzen du.</p> <p>Produktua inpaktu handikoa da, aldaketa sorrarazteko gai da.</p> <p>Ikasleak gidapenari dagokienez, ikasleek auto-ebaluazioaz gain, koebaluazioa egiten dute.</p>

**3. taula- Behaketa egiteko erabili den errubrika**

## 2. Eranskina: Eskulanetan oinarritutako saioaren behaketa

	Berritzailea	Aldaketa	Arraroa	Egokitzapen eta besteen onarpena	OROKORREAN
<b>Eskulanetan oinarritutako metodologia</b>	0,25 Irakasleak aurrera eramaten duen ekintza iturrian topatu duen moduan aurrera eramaten du.  Irakasleak, gutxitan moldatzen du ekintza ikasleen garapenerako.	0,5 Ikasleak ezagutzak garatzen ditu praktikenaren bidez, ekintza osoan zehar ikaskuntza prozesu nabarmena gertatzen da.	0,25 Proposamen didaktiko honen bidez ikasle guztiek produktu berea lortzen dute, ikasleek lehendabizi jarritako pausu batzuk segi behar dituzte eta haien askatasuna apaingarrietara mugatzen da. Adibidez, kolorearen erabakia.  Irakasleak ikasleei produktuaren azkenengo emaitza aurkezten die.	0,25 Sortutako produktuak ez du helburu zehatz bat betetzen, apaintzearekin erlazionatuta ez dena.  Gutxitan, arazo bat konpontzen edo behar bat asetzen du.  Gutxitan, inpaktua eragiten du. Irakasleak gidapena eta ebaluazioa egiten ditu.	$\frac{3,12}{10}$ <b>Sormenaren garapena gutxitan errespetatzen du</b>

4. taula- Eskulanetan oinarritutako metodologian bildutako datuak

<b>Sormenaren herdoiltzea nabarmentzen da.</b>	<b>0- 2.5</b>
<b>Sormenaren garapena gutxitan nabarmentzen da.</b>	<b>2.5-5</b>
<b>Sormenaren garapena askotan nabarmentzen da.</b>	<b>5-7.5</b>
<b>Sormenaren garapena gehienetan nabarmentzen da.</b>	<b>7.5-10</b>

2. taula- Sormenaren garapen maila identifikatzeko atazen taula.


### 3. Eranskina: Eskulanetan oinarritutako saioa

GINGERBREAD MAN'S HOUSE	
<b>Gaitasunak</b>	Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna (Euskera) Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna
<b>Helburua</b>	Eskulana egin.
<b>Ebaluazioa</b>	Amaierako produktua ebaluatu.
<b>PROZESUAREN ARGIBIDEAK</b>	
1. Pausua	
Margotu etxetxo eta tolestu irudia. Kolarekin itsatsi tente mantentzeko.	
2. Pausua	
Jarri ezazu kotoia elurreko sentsazioa emateko.	
3. Pausua	
Koloreztatu, moztu eta itsatsi leihoak eta ate bat.	
4. Pausua	
Apaindu zure etxea. Sartu oparitxo bat barnean.	

#### 5. taula- Eskulanetan oinarritutako metodologia, behatutako adibidea



#### 1. irudia- Eskulanetan oinarritutako metodologia, behatutako adibidea, liburuaren argibideak



2. irudia- Eskulanetan oinarritutako metodologia, prozesuaren adibidea



3. eta 4.irudiak- Eskulanetan oinarritutako metodologia, azken emaitza

## **4. Eranskina: Eskulanetan oinarritzen den metodologian lantzen duen irakaslearekin egindako elkarrizketa**

---

Elkarrizketa hau egindako irakaslea, pertsona heldua da, berrogei urte ditu, Arte Hezkuntza irakasten hiru urte darama eta hamabost irakasten. ART-eko irakasgaia jorratzen du seigarren mailan, Arte Hezkuntza atzerriko hizkuntzaren bidez.

Ekintzen diseinua eta antolakuntzari dagokienez, irakasle honek, klaseak gidatzeko duen liburuan oinarritzen da. Ospakizunekin lotutako egunak kenduta, liburuak markatzen duen antolamendua aurrera eramaten du. Irakasle honen helburua, ikasleak Arte Hezkuntzaren teknika desberdinak erabiltzen ikastea da. Horretarako, teknika hauek transmititzen ditu eta ikasleek praktiketan jartzen dituzte. Ekintza horietan erabilitako materiala irakaslearen ardura da, ikasleen diru sarrerak erabiliz, hark erosten ohi ditu.

Sormenaren garrantzia balioesten du, baina bere klaseetan beste premia batzuk ezartzen ditu: tekniken jabeakuntza, IKT-ren erabilpena eta erlaxatzea. Premia horien artean, atzerriko hizkuntzaren ikaskuntzaren garapena nabarmentzen du. Modu horretan, haren klaseetan komunikazioa sustatzen du, ikasleei galderak eginez, iritzi elkar-emanan sustatuz... Haren jarrerari dagokienez, haren helburuekin bat datozen jarrera dugu, irakaslea gidaria izaten saiatzen da, baina ikasleen ekoizpena atsegina ez denean edo teknika bat ezarritako moduan erabili ezean, zuzenketak egiten ditu.

Horrela, sormena bigarren maila batean jartzen du. Eskulana azaltzean, ikasleei eredu bat erakusten die, batzuetan berak sortutakoa, beste batzuetan, irudi bat. Produktuaren eraketan jarraitu beharreko pausuak, irakasleak edo liburuak ezartzen ditu, ikasleen erabakiak produktuaren apaingarritasunari mugatuz.

Beste aldetik, irakasleak ebaluazioa egiteaz arduratzen ohi da. Irakasleak erabilitako teknika edo produktuaren emaitza ebaluatzen ohi du. Koebaluazioa eta ebaluazioa posible ikusten du baina beste premia batzuk garrantzitsuagoak ikusten ditu. Horrelako ebaluazioa beste irakasgaietan aurrera eramaten saiatzen da, eraginkorragoa ikusten du beste arloetan gaiaren sakontasuna argudiatuz. Haren helburuen artean Art irakasgaietan lasaitzea, arte kultura ikusteak, atzerriko hizkuntza garatzea, teknika desberdinak menperatzea eta disfrutatzea topa ditzakegu.

Irakasle honi, Arte Hezkuntza gehiago lantzea gustatuko litzaioke. Haren formazio falta onartzen du, baina autoformazioaren esku uzten du. Formazio hori margoketa eta arte tekniken jabeakuntzan oinarritzen du.

## 5. Eranskina: Proiektuetan oinarritutako saioaren behaketa

	Berritzailea	Aldaketa	Arraroa	Egokitzapen eta besteen onarpena	OROKORREAN
<b>Proiektutan oinarritutako metodologia</b>	<p><b>1</b></p> <p>Irakasleak egiten duen ekintza guztiz berritzailea da, irakasleak ekintza moldatzen du helburu zehatz baterako. Ekintza hori estereotipotik huts egiten da, esate-baterako ikasleei gutxitan aurkezten zaie lortu behar duten adibiderik, haiek erabakitzen dute ekintza noiz amaitzen den.</p> <p>Gainera, ikasleek ekintza horren garapena moldatzen dute haien irizpideen arabera. (kritikotasuna erabiltzen da)</p>	<p><b>1</b></p> <p>Ikasleak lehen momentutik zuen ikuspuntua aldatzen du, berriro ariketa planteatuz gero, ekintza beste modu batera hasiko zuen.</p> <p>Benetako garapen bat ematen da ikasleengan eta ikaslearen paradigmaman. Ekintza horri aurre egiteko ikuspuntua aldatzen da. Gainera, beste arlo batzuetan aplikatzeko estrategiak ikasten ditu.</p>	<p><b>0.75</b></p> <p>Ekintza honen bitartez lortzen diren produktuak berdinak dira baina ikasleek haien sorkuntzaren jabe dira, hartzen dituzten erabaki guztiek prozesua baldintzatzen dute.</p> <p>Ikasleek prozesuaren gidaria direnez, hartzen dituzten erabakiak emaitza baldintzatzen dute, adibidez, neurrietan, forman eta koloretan produktu desberdinak dira (guztiak “gauza” bera dira baina antzekotasuna ez da ematen).</p> <p>Irakasleak produktuaren azkenengo emaitza zein den esaten zaie, zer lortu behar duten esaten die. Ikasleek nola egin erabakitzen dute.</p>	<p><b>0,50</b></p> <p>Sortutako produktuak helburu zehatz bat betetzen du, irakasleak jarritako xedea eta produktua zein den zehazten du.</p> <p>Gutxitan, arazo bat konpontzen edo behar bat asetzen du</p> <p>Gutxitan inpaktua eragiten du. Irakasleak gidapena eta ebaluazioa egiten ditu.</p>	<p><math>\frac{8,12}{10}</math></p> <p><b>Sormenaren garapena gehienetan nabarmentzen da</b></p>

### 6. taula- Proiektuetan oinarritutako metodologian bildutako datuak

<b>Sormenaren herdoiltzea nabarmentzen da.</b>	<b>0- 2.5</b>
<b>Sormenaren garapena gutxitan nabarmentzen da.</b>	<b>2.5-5</b>
<b>Sormenaren garapena askotan nabarmentzen da.</b>	<b>5-7.5</b>
<b>Sormenaren garapena gehienetan nabarmentzen da.</b>	<b>7.5-10</b>

### 2. taula- Sormenaren garapen maila identifikatzeko atazen taula.



## 6. Eranskina: Proiektuetan oinarritutako saioa

GIDA TURISTIKOA
<b>Gaitasunak:</b> Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna (Ingelesa) Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna
<b>Helburua</b> Paisai baten deskribapena egiten ikasi.
<b>Ebaluazioa</b> Errubrika baten bitartez, bata collagea aurkezten den Arteko gaitasuna ebaluatzeko eta bestea gida turistikoan adierazten den hizkuntza komunikaziorako gaitasuna ebaluatzeko.
<b>PROIEKTUREN PROPOSAMENA</b>
<b>1. Jarduera "Deskribapenerako izenondoak"</b>
Paisaia desberdin bat txoko bakoitzerako banatu. Banaka paisaia horrekin erabili daitezken izenondoak zerrenda bat egin.
Round Table: Ipad bat aukeratu. Ikasle batek izenondo bat aukeratu bere zerrendatik eta idatzi. Ondoren, alboko kideari pasatu eta berdina egin behar du; bere zerrendatik izenondo bat aukeratu eta idatzi. Horrela 4 buelta egingo ditugu eta ikasle bakoitzak 4 hitz idatziko ditu; izenondo zerrenda aberats bat aterako ditugu. Klaseko izenondo zerrenda aterako dugu gelan zintzilikatzeko. Kartulina batean hitzak idatzi zerrenda moduan.
<b>2. Jarduera "Collage"</b>
A. Ikasle bakoitzak paisaia bat asmatu eta <b>collage</b> bat sortu irudi hori adierazten duena B. Sortutako Collagea, ondoan daukazuen kideari pasatu. C. Jaso duzuen kidearen Collagea deskribatu idatziz. D. Bakoitzak bere Collagea klaseko tokiren batean itsatsiko du. E. Irakasleak deskribapenak jasoko ditu eta banatuko ditu. F. Bakoitzak tokatu zaion deskribapenarekin erlazionatutako irudia bilatu behar du
<b>5. Gida turistikoa</b>
Behin paisaiaren collagea eta deskribapena eginda, asmatu dugun lekuaren gida turistikoa sortuko dugu.
Horretarako gida hori irakurriko duten pertsonen aditasuna deitu behar dugu. Nola?
- Izenburu deigarri bat idatziz. - Irudiak marraztuz eta koloreztatuz. - Leku horren ezaugarriak eta interesguneak aipatuz. - Egin ahal diren ekintzak zerrendatuz. - Topatu ditzakegun animaliak eta landare motak asmatuz. - Bertara ailegatzeko bidea eta garraiobideak (autoz, txirrindulaz, txalupaz, etab.)

azalduz.

- Bertara joatera animatzen gaituen eslogan bat idatziz.

Gogoratu: ZENBAT ETA ORIGINALAGOAK IZAN, ORDUAN ETA JENDE GEHIAGO ANIMATUKO DA GURE PAISAIA BISITATZERA.


7. taula- Proiektuetan oinarritutako metodologia, behatutako adibidea




5.irudia- Proiektuetan oinarritutako metodologiaren emaitza. Collagea.



6.irudia- Proiektuetan oinarritutako metodologiaren emaitza. Gida turistikoaren azala.



7.irudia- Proiektuetan oinarritutako metodologiaren emaitza. Gida turistikoa. 1. Orria.



8.irudia- Proiektuetan oinarritutako metodologiaren emaitza. Gida turistikoa. 2. Orria.




9.irudia- Proiektuetan oinarritutako metodologiaren emaitza. Gida turistikoa. 3. Orria.




10.irudia- Proiektuetan oinarritutako metodologiaren emaitza. Gida turistikoa. 4. Orria.



11.irudia- Proiektuetan oinarritutako metodologiaren emaitza. Gida turistikoa. 5. Orria.



12.irudia- Proiektuetan oinarritutako metodologiaren emaitza. Gida turistikoa. 6. Orria.



13.irudia- Proiektuetan oinarritutako metodologiaren emaitza. Gida turistikoa. 7. Orria.

## **7. Eranskina: Proiektuak lantzen duen irakaslearekin egindako elkarrizketa**

---

Proiektuen inguruko elkarrizketa egindako irakasleak zazpi urte darama irakasten, azken lauak arteko proiektuak diseinatzen eta aurrera eramaten. Ez ditu Arte Hezkuntzarekin erlazionatutako ikaskuntzarik, beraz, haren formazioa esperientziatik abiatuta dago.

Irakasle honek, haren planifikazioa interesgune batean oinarritzen du, ikasleentzat motibagarria izan ahal den gai bat pentsatzen du eta horretatik abiatzen da. Horretarako, ikasleek haien sormenaz edo haien kideen laguntzaz baliatzen dira. Jarraian, irakasleak ikasleei gaia aurkezten die eta horren inguruan ekintzak proposatzen ditu. Ekintza horiek, curriculumean markatutako irizpideekin bat datorrela ziurtatzen da eta lauhilabete horretan adostutako gaitasunaren bat lantzen duela frogatzen du.

Ekintzen diseinua eta antolakuntzari dagokienez, erlazionaturik daude gai baten inguruan. Horrela, hamabost saioko proiektuak izanda, hiru aste inguru, ekintza bat hurrengoarekin loturaren bat mantentzen du, ildo bat jarraituz.

Kontuan hartzekoa da, irakasle honek sormenaren garrantzia balioesten duela eta premiazko baldintza ikusten duela. Horrela, irakasleak, sormena proiektuaren diseinuan kontuan hartzen du, ikasleek egiten duten produktua pertsonala izanda eta hauek jarraituko duten prozesuan zehar moldaketak eginez. Irakasle honek, ikasle bakoitzak bere produktuan emozioak eta haien izaera adieraztera bultzatzen du.

Prozesuan zehar, arterako gaitasuna eta erabakitzen duen beste gaitasun bat garatzen saiatzen da. Gaitasun horien lanketa proiektuaren xedea da. Irakaslea, lehengo ekintzetan teknikak irakasten saiatzen da, eta gero, autonomia, kritikotasuna eta sormena erabiltzea ahalbidetzen ekintzak proposatzen ditu. Diseinatutako ekintzetan ikasitako teknikak, era aske batean aplikatzen dira.

Ekintzen aurkezpenean ez du normalean adibiderik ematen, lortu behar duten helburua baizik. Irakasleak adibideak ematean, ikasleak errepikatzen saiatzen direla kontzientea da. Ikasleak haien proiektuen planifikatzaileak dira. Horrela izanda, ikasleak gehiago inpliketzen dira, produktu anitzak eta desberdinak sortuz, bakoitzak bere produktu pertsonala lortuz. Saioetan, ikasleei aholkuak eta zalantzen argipena eskaintzen dizkie, gidariaren rola hartuz.

Sarritan, proiektuaren amaieran ebaluazioa egiten da, ebaluatzaileak, irakasleak edo ikasleak izan daitezke. Proiektuetan koebaluazioa eta autoebaluazioa erabiltzen dira, ikasleen pentsamendu kritikoa garatzeko asmoarekin. Hauetan, irakasleak errubrika batzuk prestatzen ditu, irizpide batzuk kontuan hartuz eta ebaluatzaileak errubrika hauek bete behar dituzte. Errubrika hauek diseinatzean, proiektuan garatzen diren gaitasunen adierazleak biltzen dira.

Irakasle honen helburuen artean, Arterako gaitasuna, aurretik markatutako beste gaitasunak, sormena eta pentsamendu kritikoa garatzea aurkitzen ditugu. Irakasleari, Arte Hezkuntzako saio gehiago izatea gustatuko litzaioke. Amaitzeko, topatzen duen oztopo handiena saio gutxiegi izatea da.